


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko urria

Euskal AEko industri jarduera %1,9 gehitu zen 2014ko urrian

Aurreko hilarekin alderatuta %1,5 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2014ko urrian %1,9 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2013ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %1,5 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2014ko irailarekin alderatuta.



2014ko urriko indizearen bilakaerak, 2013koaren aldean, joera ezberdina izan du industri talde handietan. Kontsumo-ondasunak %0,5 jaitsi dira guztira; Kontsumo-ondasun iraunkorrak %-15,1, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %+5,4. Ekipo-ondasunak %1,7 jaitsi ziren; Bitarteko ondasunak %0,8 gehitu eta Energia %16,8.

Hil artekoa, 2014ko urrian irailaren aldean, negatiboa izan da Ekipo ondasunetarako, (%-0,7) Bitarteko ondasunak %1,0 gehitu ziren, Energia %3,7; Kontsumo-ondasunak %4,0. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %2,7 gehitu ziren eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,4.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2014ko urrian, urte artean: Zura, papera eta arte grafikoak %7,3; Energia elektrikoa, gasa eta lurrina %6,0; Elikadura industriak, edariak eta tabakoa %5,5.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntzasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	6,0
09 - Kautxua eta plastikoak	2,4
13 - Makineria eta tresneria	2,9
14 - Garraio-materiala	-14,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	5,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-7,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	7,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria produkzioaren indizea

Garraio materialean urte arteko %14,2ko jaitsiera; Material eta ekipo elektrikoan %7,5.

Urriko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera lurraldeka: Bizkaian %+8,8, Araban %-2,6, Gipuzkoan %-2,2. Hil arteko tasa: Araban %-1,4; Bizkaian %+3,9; Gipuzkoan %+0,5.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2014 urria

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urr2014/Urr2013	M(Urr2014)/M(Urr2013)*	Urr2014/Ira2014	Ira2014/Abu2014
Indize orokorra				
Euskal AE	1,9	1,2	1,5	-3,5
Araba/Álava	-2,6	1,3	-1,4	-6,4
Bizkaia	8,8	1,0	3,9	-1,2
Gipuzkoa	-2,2	1,3	0,5	-4,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,5	-3,1	4,0	-2,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,1	-19,6	2,7	-1,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	5,4	3,8	4,4	-2,4
Ekipo-ondasunak	-1,7	0,8	-0,7	-5,1
Bitarteko ondasunak	0,8	2,9	1,0	-5,4
Energia	16,8	0,0	3,7	2,2

(*) 2014ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua